

ZERBITZUAK KONTRATATZEKO JUSTIFIKAZIO TXOSTENA

1993ko urriaren 8an OARSOALDEA, S.A.ko (aurrerantzean, AGENTZIA) Administrazio Kontseiluak kontratazio-organo honen alde emandako ahalordean ageri diren ahalmenekin bat eta sektore publikoaren kontratuei buruzko 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, 2014ko otsailaren 26ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako lege-antolamenduan iraultzen dituenak, (aurrerantzean, SPKL) 116. artikuluan xedatutakoaren babesean,

TXOSTENA

1. KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Kontratazio honen bidez “Lezo Eko-Parke Industriala” proiektua garatzeko laguntza tekniko adituaren beharrak ase nahi dira.

Kontratuaren xedea eta bere edukia aurreko paragrafoan deskribatutako beharrak asetzeko egokiak dira.

Beharrek zuzeneko harremana, argia eta neurizkoa, dute kontratuaren xedearekin.

2. BITARTEKOEN ESKASIA

AGENTZIAK ez du nahikoa giza baliabiderik, ezta bitarteko materialik ere kontratazioaren xede diren beharrak estaltzeko. Beraz, AGENTZIAN zerbitzuak eskaintzen dituzten langileek ezin dute behar bezalako bermeaz gauzatu.

Zehatz-mehatz esanda, egungo AGENTZIAREN lanpostuen zerrendan ez da lanposturik aurrez ikusten halako laguntza tekniko adituari atxikitako funtzioekin. Era berean, AGENTZIAK ez du bitarteko material nahikorik halako beharrei erantzuteko.

3. FINANTZAKETA IZATEA

Espediente honek aipatzen duen zerbitzuen kontratua gauzatzeko, IHOBEEK eman ostean, AGENTZIA 25.000 (HOGEITA BOST MILA) euroko diru-laguntzaren onuradun da, hortaz, 21.559 (HOGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI) euroko gastua onartzeko finantzaketa nahikoa da, nahiz eta 4.527 (LAU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA ZAZPI) euro erantsi BEZaren kontzeptupean. Guztira 26.086 (HOGEITA SEI MILA ETA LAUROGEITA SEI) euro dira.

4. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 21.559 (HOGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI) eurokoa da (BEZa kanpo).

Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, AGENTZIA honek azken urteetan proiektuen aholkularitzaren arloan sinatutako antzeko kontratu guztien egiazko balioa kontuan hartu da, beraz, indarreko lan-arautegiak aplikatzearen ondoriozko kostuak, egikaritze materialaren bestelako kostuak, egituraren gastu orokorrak eta industria-irabazia sartuak daude. Era berean, luzapenik eta kontratuaren goranzko aldaketarik ez egoteari erreparatu zaio eta lizitatzaileei ez zaie primarik ordaindu behar.

5. LIZITAZIO-PROZEDURA HAUTATzea

SPKLren 318.b artikulua xedatutakoaren arabera, zerbitzu-kontratuak adjudikatzean administrazio publikoak ez diren adjudikazio-botereen araupetze harmonizatuaren arabera ez bada, "legeak bigarren liburuko I. tituluaren I. kapituluko 2. atalean aurrez ikusitako edozein prozedura erabiliz adjudika daitezke, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua izan ezik. Hori bakarrik 169. artikuluan aurrez ikusitako kasuetan erabil daiteke".

Kontratuaren xedari dagozkion ezaugarriak kontuan hartuta, egokiena ohiko prozedura irekia (OPI) erabiltzea da hurrengoetan oinarrituta:

- a) Kontratuaren balio zenbatetsiarengatik ezin daiteke kontratu txikiaren bidez zuzeneko adjudikazioa egin (SPKLren 118. artikulua).
- b) Kontratuaren xedea prestazio intelektuala da eta, ondorioz, ezin daiteke prozedura ireki oso sinplifikatua hautatu (SPKLren 159.6. artikulua).
- c) Iriztiaren arabera ebalua daitezkeen adjudikazio-irizpideak daude eta guztizkoaren ehuneko berrogeita bost gainditzen dute, beraz, ezin daiteke prozedura ireki sinplifikatua erabili (SPKLren 159.1. artikulua).
- d) Prozedura mugatuek eta publizitatearekin negoziatuek partaidetza eskatzeko eta hautagaiak aukeratzeko alde aurretiko faseak dituzte eta behar izan gabe adjudikazio-prozesua luzatzen dute (SPKLren 160., 169. artikulua eta bat datozenak).
- e) Kontratu publizitaterik gabeko prozedura negoziatua aplikatzeko ustezkoetan ez da azaltzen (SPKLren 168. artikulua).
- f) Izenak berak adierazten duenez, OPIri esker modu irekiagoan sustatzen da lehia, eskatutako gaitasuna egiaztatzen duen lizitatzaile orok eskaintza aurkez baitezake.

6. LIZITATZAILEEI ESKATUTAKO GAITASUNA. EZ DA LIZITATZAILEEN SAILKAPENA ESKATZEN

Administrazio-baldintza berezien pleguan eskatutako kaudimenaren irizpideek kontratuaren xedearekin zuzeneko harremana dute eta horrekiko neurrizkoak dira, SPKLk eskatutako gutxienekoen arabera.

Eskatzen den kaudimen ekonomiko eta finantzarioari dagokionez, eskakizunarekin ziurtatzen da enpresa lizitatzaileak gutxieneko gaitasuna duela kontratuaren xedea pleguetan adierazitako baldintzetan egiteko.

Gaitasun tekniko edo profesionalari buruz (hau da, industria-azpiegituri lotuta ingurumen-aholkularitzaren eremuan gutxienez hiru urteko esperientzia), horrekin enpresa lizitatzaileek kontratuaren xedea ezagutu eta garatu dutela eta ahalmen osoz AGENTZIAREN alde gauza dezaketela ziurtatu nahi da.

SPKLk 77.b. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezin daiteke eska enpresa lizitatzailerak sailkatuak egotea.

7. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Adjudikatzeko adjudikazio-irizpide anitz erabiliko da kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarrituta.

Formulak automatikoki aplikatu ostean zenbat daitezkeen irizpideen haztapenaren aldean, iritzaren arabera ebalua daitezkeen irizpideei ehuneko handiagoa ematea aukeratu da. AGENTZIAK aurre egin nahi dion ingurumen-proiektu honetan oso garrantzitsuak dira eduki intelektuala eta laguntza teknikoaren izaera berritzaileak. Formula hori hautatu da, SPKLren printzipioak eta arauak betetzeaz gain, automatikoki objektibotasunez ebalua daitezkeen irizpideak (bereziki prezioa) ez baitira hain adierazgarriak, laguntza publikoen lerroaz baliaturik, AGENTZIARI aholkularitzaren gastua ordainduko zaion neurrian.

Administrazio baldintza berezien pleguak jasotako eskaintza ekonomikoekiko modu proportzionalen esleitzeko ditu puntuak. Eskaintzarik onenek puntu gehiago lortuko dituzte eta arrazoiz egingo da banaketa. Eskaintza ekonomikoetan oso esangarriak ez diren aldeak puntuak esleitzean alde nabarmenak izatea saihestuko da.

8. GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Lizitazio honen pleguetan ageri diren gauzatze-baldintza bereziek kontratuaren xedearekin zuzeneko harremana dute. Ez dira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak eta Erkidegoko Zuzenbidearekin bateragarriak ditugu.

9. PROPOSAMENAK ELEKTRONIKOAK EZ DIREN BITARTEKOAK ERABILIZ AURKEZTEA

AGENTZIA berme osoz kontratazio-espeditenteak elektronikoki izapide daitezen azpiegitura elektronikoa eta baliabideak aztertzekeo prozesuan murgilduta dago.

Horregatik, prozedura honetan eskaintzak bitarteko elektronikoak erabili gabe aurkeztuko dira, SPKLk hamabosgarren xedapen gehigarriko 3. atalean aurrez ikusitako gorabehera ematen delako. Izan ere, AGENTZIAKO kontratazio-organo honek ez du ekipo ofimatikorik, ezta giza baliabide aditurik ere prozedura elektronikoa erabiltzeko.

Nahiz eta bitarteko elektronikoak ez erabili, komunikazioetan, baita informazioa trukatu edo gordetzen denean ere datuen osotasuna eta eskaintzen nahiz partaidetza-eskaeren konfidentzialtasuna babestuko dira. Ildo horri eutsiz, ez da eskaintzen edukia aztertzekeo aurkeztekeo epemuga eta gutun-azalak irekitzeko eguna iristen ez den bitartean (SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarriaren 5. atala).

10. EZ DA LOTEETAN BANATUKO

Kontratuaren xedea ez dago loteetan banatuta, laguntza teknikoak unitate funtzionala eskatzen baitu eta loteetan banatuko balitz, ikuspegi teknikoetik ezinezkoa litzateke behar bezala gauzatzea, beraz, SPKLk 99.3 artikuluan aurrez ikusitakoa aplikagarria da.



1-2018. OPI – LEZO EKO-PARKE INDUSTRIALA

Oiartzunen, 2019ko otsailaren 18(e)an

Sin.: Kontratuaren arduraduna.- Oarsoaldea, S.A.ko Hiri Berrikuntza eta Mugikortasunaren zuzendaria

Sin.: Kontratazio-organoko O.E.- Oarsoaldea S.A.ko zuzendari kudeatzailea

